

Oinarriak

1. Parte-hartzaileak

Literatur Lehiaketa hau getariarrei zuzenduta dago. Bakoitzak nahi adina idazlan aurkez ditzake, betiere adinaren arabera dagokion mailan. Lanak banaka egingo dira.

2. Modalitateak eta mailak

Bi modalitate izango dira maila bakoitzean: IPUINA eta BERTSOA/OLERKIA.

- | | |
|-----------------------------|---------------------------------|
| 1. LH-ko 1. mailako haurrak | 6. LH-ko 6. mailako haurrak |
| 2. LH-ko 2. mailako haurrak | 7. 12-14 urte arteko gaztetxoak |
| 3. LH-ko 3. mailako haurrak | 8. 14-16 urte arteko gazteak |
| 4. LH-ko 4. mailako haurrak | 9. 16 urtetik aurrerakoak |
| 5. LH-ko 5. mailako haurrak | |

3. Gaia eta luzera

Gaia librea da. Idazlanek literatur lehiaketetan saritu gabeak eta argitara gabeak izan behar dute. Neurriari dagokionez, hona hemen mailaz maila eta modalitatez modalitate gutxieneko neurriak (A4 neurriaren arabera):

	Ipuina (Orrialdetan)	Olerki/Bertsoa (Lerrotan edo bertsoan)
1. LH-ko 1. mailako haurrak	1 or.	8 lerro edo bertso 1
2. LH-ko 2. mailako haurrak	1 or.	8 lerro edo bertso 1
3. LH-ko 3. mailako haurrak	1 or.	8 lerro edo bertso 1
4. LH-ko 4. mailako haurrak	1 or.	8 lerro edo bertso 1
5. LH-ko 5. mailako haurrak	2 or.	10 lerro edo bertso 1
6. LH-ko 6. mailako haurrak	2 or.	10 lerro edo bertso 1
7. 12-14 arteko gaztetxoak	2-5 or.	12 lerro edo 2 bertso
8. 14-16 arteko gazteak	3-6 or.	20 lerro edo 3 bertso
9. 16 urtetik aurrerakoak	4-10 or.	35 lerro edo 5 bertso

4. Lanak nola aurkeztu

Lanak ordenagailuz idatzita aurkeztu behar dira (LH1 eta LH2ko hurrek eskuz idatzita aurkez ditzakete) eta ipuinen kasuan A4 orrietan, lerroartean tarte bikoitza utzia.

Idazlanarekin batera kartazal itxi bat aurkeztu behar da. Barruan egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia adieraziko dira. Kartazalaren kanpoaldean ipuin edo olerki/bertsoaren izenburua idatziko da.

5. Lanak non aurkeztu eta aurkezteko epea

Idazlanak Getariako Udaleko bulegoetan edo Udal Liburutegian aurkeztu behar dira.

Idazlanak aurkezteko epea 2014ko apirilaren 4an, 13:00etan.

6. Epaimahaia

Epaimahaia osatuko dute Getariako Udaleko Euskara Batzordeko buruak, eta Iturzaeta Herri Eskola, Artzape herri-aldizkariko ordezkari bat eta herriko idazle bat... Idazkari lanak Udaleko teknikariak egingo ditu.

7. Erabakia

Epaimahaiak erabakia jakitera eman ondoren, **sariak apirilaren 11n banatuko dira, 18:30ean.**

Epaimahaiak sariak eman gabe utz ditzake, aurkeztutako lanek behar besteko mailarik ez dutela irizten badio.

8. Sariak

Maila eta modalitate bakoitzeko sari bakarra emango da. Egile batek ezingo ditu bi sari jaso. Hona hemen sariak:

	Sariak	Ipuina	Olerki/Bertsoa
1.	LH-ko 1-6 mailako haurrak	saria	saria
2.	12-14 urte arteko gaztetxoak	saria	saria
3.	14-16 urte arteko gazteak	saria	saria
4.	16 urtetik aurrerakoak	150 euro	150 euro

9. Lanen jabetza eta argitalpena

Saritutako lanak Getariako Udalaren esku geldituko dira, eta Udalarena izango da lan horiek erakutsi eta argitaratzeko eskubidea. Egileek ez dute jabetza eskubiderik jasoko.

10. Idazlanak itzultzea

Saririk jasotzen ez duten idazlanak Getariako udaletxean eskuratu ahal izango dira, sari banaketa egin eta 30 eguneko epean. Epe horretan jaso gabeko idazlanak Udalaren esku geldituko dira.

Literatur Lehiaketa honetan parte hartzeak lehiaketa arautzen duten oinarriak onartzea dakar.

GETARIAKO UDALA



www.getaria.net

GETARIAKO

**XIII. Literatur
Lehiaketa**

2014